



GIRALDA

OIONGO UDALAREN
ALDIZKARI INFORMATIBOA

4 ZENBAKIA-2025EKO EKAINA

Entreviñas Martxa

Arrakasta handia izan du Mahastien arteko Martxa.

Aisialdi eta kulturaren uda bat

Herritarrek eta bisitariek musikaz, haurrentzako jardueraz eta askoz gehiagoz betetako agendaz gozatzeko aukera izango dute.

Zuhaitza landaketa

Bolondres talde batek zuhaixkak eta zuhaitzak landatu zituzten Oionen.




SAN PRUDENTZIO ETA ESTIBALIZKO AMA BIRGINAREN JAIEN KARTELA

Kartel irabazlea Pablo Medrano Lopezen lana da.

2025 honetan San Prudentzio eta Estibalizko ama Birginaren jaietan arabarren festa iragartzeko kartelaren lehia-keta ere martxan jarri zen Oionen.

Parte hartzea oso ugaria izan zen, diseinu estilo desberdinak ikusi ziren eta parte hartzaile guztien kalitatea eta originaltasuna agerian geratu zen.



Barraskiloak, dantzak, Oiongo eliza eta gainerako xehetasunak kartel irabazleak jasotzen zituen, Pablo Madrano Lopezen lanaren bidez.

Hautatuak izatea lortu ez zenutenok, ez etsi eta hurrengo deialdian itxaroten zaituztegu. _

SUTEA EURORESIN EMPRESAN

Maiatzaren 4ko goizaldean, 03:20an aldera, sute bat piztu zen Oiongo enpresa batean.

Arabako eta Errioxako suhiltzaileei eta babes zibilari esker, sutea itzalita geratu zen igande goizean, eta ez zen inor zauritu. Kalte materialak handiak izan ziren, baina ez zen kalte pertsonalik izan.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak adierazi zuen El Puntido industrialdean gertatu zela, enpresa horren hondakin eta gasolio biltegietan.

Aztarna bakarra ke laino handi bat izan zen, denbora laburrean desagertu zena eta inguruko lurraldeetara zabaldu zena, hala nola Nafarroara eta Errioxara. Gaur egun ez dago argi zerk eragin duen sutea; hala ere, enpresaren fatxadari baino ez dio eragin, eta ez da iritsi inguruko beste enpresetara. _





ARGITARLETXEA

Ongi etorri gure lauhilabetekaria, GIRALDA aldizkariaren laugarren ediziora, Oionen gertatzen den guztiaren berri herritarrei emateko gunea. Zenbaki honetan, aurrekoetan bezala, albiste garrantzitsuak, hurbileko eta pasatutako ekitaldiak, tokiko ekimenak eta erreportajeak aurkituko dituzue, gure herri maitearen funtsa atzematen dutenak. Oiongo bizitzarako leiho honetaz gozatzea espero dugu.

Uda zoriontsua!



SUMARIOA

San Prudentzio Jaialdiko kartela	2
Sutea Euroresing	2
Lasterketa Solidarioa Aspanafoaren alde	4
Aisialdi eta kulturaren uda bat	5
Entreviñas Martxa	5
Zuhaitza landaketa	6
Pintxo lehiaketa oliba olio jaialdian	6
Torrijak txokolate zurian	7
Elkarrizketa Irati Bellorekin	8



GIRALDA

Revista Informativa del
Ayuntamiento de Oyón
JUNIO 2025

Edita
**AYUNTAMIENTO
DE OYÓN**

Diseño y maquetación
CALLE MAYOR
www.callemayor.es
T. 606 363 458



LASTERKETA SOLIDARIOA ASPANAFOAREN ALDE



Joan den apirilaren 6an, Oiongo herria elkartasun egun hunkigarri batean murgildu zen, eta ezin eza-batuzko arrastoa utzi zuen. ASPANAFOaren (Arabako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte) aldeko lasterketa solidarioak arrakasta handia izan zuen, parte hartzeari eta, are garrantzitsuagoa dena, ber-taratutako en eskuzabaltasunari dagokienez itxaropenak gaindituz.

Goizeko lehen orduetatik, itxaropenez betetako giro zirraragarriak bete zituen Oiongo kaleak. Familia osoak, kirol zaleak eta adin guztietako bizilagunak elkartu ziren helburu komun batekin, ASPANAFOaren kausa nobleari bere aletxo ematea.

Kamiseten koloreek, irribarreek eta elkarriketa biziek komunitate giroa eta konpromiso inspiratzaile sortzen zuten.

Hasiera gogorra izan zen, eta korrikalariak horretarako diseinatutako ibilbideak osatzera bultzatu zituen. Haur, gazte eta helduek euren kirol espiritua eta elkartasuna erakutsi zuten urrats bakoitzean. Ibilaldi solidarioaren alde egin zutenek ibilaldi atsegina izan zuten, lagunarteko uneak eta elkarri laguntzeko uneak partekatuz.

Helmuga zeharkatzean, nekea poztasun bihurtzen zen, haren ahaleginak Araban minbiziaren aurka borrokatzen duten haurren eta familien bizi kalitatea hobetzen zuzenean laguntzen zuela jakitean. Baina lasterketa proba fisiko bat baino askoz gehiago izan zen, beste behin ere, herri bat kausa zuzen baten inguruan batzearen sinboloa izan zen.

Azken diru bilketak aise gainditu zituen hasierako aurreikuspenak, Oiongo biztanleen eta ekimen solidario horrekin bat egin zuten guztien sentsibilitate sakona eta bihotz handia erakutsiz. Eskuzabaltasuna inskripzio bakoitzean, dohaintza bakoitzean eta laguntza keinu bakoitzean agertu zen. Eraitza emankor horri esker, ASPANAFOAK laguntza psikologiko, sozial eta ekonomikoko zerbitzu balioetsuak eskainiko dizkie kaltetutako familiei.

Oionek, berriz ere, mobilizatzeko gaitasuna eta gehien behar dutenekiko konpromisoa erakutsi zituen, eta kirola eta elkartasuna etorkizun itxaropentsuago baterantz abiatu ziren egun baten kronika ezabaezina utzi zuen.

ESKERRIK ASKO. _



AISIALDI ETA KULTURA- REN UDA BAT

20 bat emanaldirekin, herriarrek eta bisitariak musika, antzerki, hurrentzako jarduerak eta asko gehiagoz betetako agendak gozatzeko aukera izango dute.

Gure herria aktibitatez gainezka egongo da uda honetan, anbizio handiko kultura eta aisialdi programazioari esker.

Oiongo Udaleko gobernu taldeak udako egutegi bat diseinatu du udalerriko bizitza sozial eta kulturala aberasteko, adin guztientzako topaguneak eta entretenimendua eskainiz. Eskaintza zabala bezain erakarria da: genero ezberdinetako musika proposamenak, irudimena piztuko duten antzerki emanaldiak, etxeko txikienentzat bereziki pentasututako jarduerak...


Egitarau zehatza oraindik amaitzen ari den arren, Oiongo plaza eta espazio emblemakoak udako hitzordu hauetarako bat bateko agertoki bihurtzea espero

da. Asmoa jai giro parte hartzailea sortzea da, kultura kalera atera eta hilabete beroen protagonista bihurtzea.

"Ilusioz lan egin dugu programazio anitza eta kalitatezkoa egiteko, jendea bere herriaz gozatzera animatuko duena eta beste herri batzuetako bisitariak erakarriko dituen. Gure ustez, kultura eta aisia funtsezkoak dira komunitatearen ongizaterako".

Datak hurbildu ahala, ekitaldi bakoitzaren xehetasunak, ordutegiak eta ospakizun-lekuak jakinaraziko dira. Oiongo uda ahaztezina bizitzeko prestatzen ari da, eta bertan kultura eta aisia izango dira protagonista nagusiak.

Adi egon hurrengo berrikuntzei! _



Auzokide kopuru handia bildu zen joan den igandean Oion, Labraza eta Gorrebusto herri bitxiak batu zituen hiribilduen arteko ibilaldian, inguruko mahastiak zeharkatuz. Ekitaldia, tokiko egutegian ezinbesteko hitzordu gisa finkatu dena, arrakasta handia izan zuen bai antolaketan bai parte hartzean.

Goizean goizetik, jai eta familia giroak irteera guneak bete zituen, eta adin guztietako parte hartzaileak naturaz beteriko kirol eta bizikidetzak jardunaldi batez gozatzeko prestatzen ari ziren. Ibilbideak mahastizaintzako eta ardogintzako paisaiak ahalik eta distiratsuen ikusteko aukera eman zuten ibiltariei, urrats bakoitza esperientzia ahaztezin bihurtuz.

ENTREVIÑAS MARTXA, ARRAKASTATSUA

Arrakasta handia izan du Arabako Errioxako Mahastien arteko Martxa Osasungarriak.



Parte hartzearen arrakasta horrek berretsi egiten du Arabako Errioxako mahastiek bizitza osa-

sungarriarekin eta ingurune naturalarekin duten konpromisoa. Gogoratzeko eguna. _



ZUHAITZA LANDA- KETA

Bolondres talde batek zuhaixkak eta zuhaitzak landatu zituen Oionen.



Martxoaren 29an, zuhaitzak landatzeko jardunaldi bat ospatu genuen udalerriko, hilerri zaharraren ondoko lorategi batean, Beheko Larrain eta Ultraia kalearen artean.

Litalsa enpresak antolatutako ekimena izan zen, Oxigeno Fundazioaren laguntzarekin. Bertan, zuhaixka aromatikoak (izpilikua, erromeroa, etab.) eta zuhaitzak (hurritzak, gurbitzak, etab.) landatu ziren.

Bolondres talde batek goiza eman zuen zeregin ekologiko horietan, naturarekiko harremanaz gozatzen eta clima aldaketaren kontrako borroka lanetan. _



Irabazleak Noemi eta Dani dira, Avenida 21 tabernakoak.

PINTXORIK PINTXO OLIOAREN JAIAN

Avenida 38 jatetxeak, Oiongo olioaren festako pintxo lehiaketaren pintxo irabazlea izendatu zuten epaileek.

Martxoaren 15ean, larunbatean, Oionek Arabako Errioxako 12. Oliba Olioaren Jaialdia ospatu zuen. Programatutako beste jarduera batzuen artean, egunak oliba olio pintxo lehiaketa bat izan zuen herriko tabernetan.

Merezi du lehiaketara aurkeztu ziren pintxoaren maila aipatzea. Bataz besteko maila handia izan zen, eta Noemi eta Dani Avenida 38 kafetegian egindako pintxoa izan zen irabazlea.



Pintxo irabazlea.




Adonix.



Escudo.



Garai.



Jubilado.

Pintxo sofisticatu eta oso zapoetsua izan zen, olioaren kontzeptua oso ondo irudikatuta, integratuta eta orekatuta zuena. Sukaldeko oinarritzko teknikak, pintxo honi irabazle egin zuten ehundura eta zaporea ematen ziotenak, ZORIONAK! _



ERREZETA

TORRIJAK TXOKOLATE ZURIAN

OSAGAIAK

- Aurreko eguneko ogia
- Esnea
- Azukrea
- Txokolate zuria
- Kanela eta limoi-azala

ELABORAZIOA

Ogia bi zentimetroko lodiera duten xerretan mozten da zerra aizto batekin. Esnea sutan jartzen dugu, nahi dugun azukrearekin, kanela makila bat eta limoi erdiko larruazala, eta esnea berotzen denean, txokolate zuria eransten zaio, norberaren gustuan, baina 300g gutxigorabehera esne litro bakoitzeko, eta esnearekin urtzen uzten dugu.

Busti xerrak sortutako nahasiarekin, eta utzi xerrak ondo bustitzen. Pasatu xerrak irabiatutako arrautzatik eta frijitu oliba olio ugaritan.

Zerbitzatzean, azukrearekin estali eta soplete batekin karamelizatu, zarakar bat torrijaren gainean atera arte. _



“BOXEOAK LIBRE ETA BIDERATUTA SENTIARAZTEN NAU”

Irati Bello, Espainiako Eskolarteko Boxeo Txapel-duna.

Oiongo Irati Bello Espainiako Eskolarteko Boxeo Txapel-dun izan zen 2023an eta datozen lehiaketetan “dena emateko” prestatzen jarraitzen du.

Zergatik animatu zinen kirol hau egitera?

Hasi nintzen boxeoa, aspalditik arreta jarri nuen kirol honen gainean eta, gainera, neure burua defendatzen ikasi nahi nuelako.

Zer sentsazio sortzen dizu kirol honetan aritzeak?

Boxeoak libre eta bideratuta sentiarazten nau, fisikoki eta mentalki lagundu egiten nauen kirola da. Egunez egunera neure burua gainditzen laguntzen dit. Gainera, iraunkortasuna, errespetua eta autokontrola bezalako balioak sustatzen ditu.

Nolakoa izan zen Espainiako txapelketaren esperientzia?

2023ko apirilaren 29an Espainiako txapel-dun izendatu ninduten, zaila zaila egin zitzaidan, baina asko entrenatu nintzen eta oso mentalizatuta nengoan, nire buruari esaten nion nik gai nintzela eta irabaziko nuela, beldurrez eta itxaropenik



“Epe laburrean, nire teknika hobetzen jarraitzea izango da”

gabe bazoaz ez duzula ezer lortzen, esaten nion nire buruari eta hor ikusi nuen, ahalegin bakoitzak bere saria lortzen duela.

Zeintzuk dira zure epe laburreko helburuak?

Epe laburrean, nire teknika hobetzen jarraitzea izango da, gehiago ikastea, eta nire buruarengan konfiantza handiagoa izatea. Esperientzia gehiago izatea ere dira nire helburuak.

Hurrengo txapelketaren data baduzu, aurkeztuko zara?

Ez dakigu noiz izango den hurrengo txapelketa, baina ziur nago dena ematera joango naizela.

Zerbait gehiago aipatu nahi duzu?

Eskerrak eman nahi dizkiet nire taldekideei eta batez ere nire entrenatzaileari beti laguntzen eta nire ondoan dagoelako egunez egunera hobe izaten. _